



"OFF LOKAL" PROGRAMAREN BAITAN TOKIKO SORTZAILEEN PROPOSAMEN ESZENIKOAK HAUTATZEKO DEIALDIA —ANTZERKIA OHIKOEZ BESTELAKO ESPAZIOETAN — 2025

AURKEZPENA:

GASTEIZKO NAZIOARTEKO 50. ANTZERKI JAIALDIAK, Udalaren Antzoki Sarearen bitartez, "OFF LOKAL" programaren edizio berri baterako deia egiten du, TOKIKO SORTZAILEEI zuzenduta eta antzerkia ohikoez bestelako espazioetara eramatea helburu.

Sorkuntza eszeniko berria eta tokiko sorkuntza erraztu eta sustatzeko asmoz, programa hau osatuko duten sei proposamen eszeniko hautatzeko deialdia aurkezten dugu. Lan horiek koproduzituak izango dira, artista hautatuen eta UDALAREN ANTZOKI SAREAREN artean, NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN bitartez.

Proposamenak aurkezteko epea **2025eko maiatzaren 5era arte** izango da.

OINARRIAK:

Lehena: deialdiaren xedea

Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailaren baitako Antzoki Sareak egiten du deialdi hau, koprodukzioko sei proposamen eszeniko hautatzeko, OFF LOKAL programaren baitan antzez daitezen GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN 50. EDIZIOAN.

Kontuan izan behar da proposatutako piezak ikusle kopuru mugatu baten aurrean (30-60 pertsona) erakusteko asmatu behar direla, eta antzezpen-espazio batean bideragarriak izan behar dutela, hurbiltasuna funtsezko faktorea baita.



Bigarrena: eskakizunak

- Jarduera eszenikoan diharduten konpainia profesional nahiz erdi- profesionalak aurkeztu ahal izango dira, egoitza fiskala Gasteizen edo Arabako Lurralde Historikoan dutela egiaztatzen dutenean.
- Proposamen eszenikoa idatzi, prestatu eta antzezteko gaitasuna duten dramaturgo, zuzendari eta antzezleek osatutako taldeak izan beharko dira.
- Proposamen eszenikoek 15 eta 20 minutu arteko iraupena izan beharko dute, eta proposatutako espaziora mugatu beharko dira. Aurtengo edizioan, Udal Sareko honako antzoki hauetako bat izango da: Félix Petite, Jesús Ibáñez de Matauco eta Federico García Lorca.
- Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren 50. urteurrenean, gaia "ospakizuna" izatea proposatzen da.
- Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz antzeztu beharko dira, edo testurik gabeko ikuskizunak izan daitezke.
- Parte-hartzaile bakoitzak hainbat istorio eta gune proposatu ahal izango ditu. Aurkeztutako proposamenen artean, epaimahaiak egokienak hautatuko ditu, eta horietako batzuk *in itinere* (hots, gune eszeniko batetik beste baterako bidean) emateko aukera gordeko du.
- Aukeratutako proposamenak horretarako prestatutako espazioetan antzeztuko dira, eta konpainiek proposatuko dituzte, GASTEIZKO NAZIOARTEKO 50. ANTZERKI JAIALDIAREN barruan. Datak lehiaketaren gainerako programazioaren arabera zehaztuko dira, eta programazio-datak honako hauek izango dira:
 - Irailak 26, 27 eta 28: Off Lokal gaztelaniaz
 - urriaren 3, 4 eta 5: Off Lokal euskaraz.
 - Saioak ostiral arratsalde (19:00), larunbat goizez (12:00) eta arratsalde (19:00) eta igande goizez (12:00) izango lirateke.



- Proposamen guztiek originalak izan behar dute, eta besteren eskubiderik ez urratu.
- Hiru proposamenen eguneroko pasea egingo da lehen adierazitako egunetan.
- Konpainiek erantzukizun zibileko aseguru-poliza sinatu beharko dute. Poliza horrek, gutxienez, ezaugarri hauek izan beharko ditu:

1.- Bermearen muga: 300.000,00 euro.

2.- Hirugarrenei eta, hala badagokio, esku-hartzea garatzen den espazioari edo lokalari eragindako kalteak estali beharko ditu.

3.- Polizan, Udala aseguratu gehigarri gisa zehaztu beharko da, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

- Proposamenak aurkezteak sortzaileek betebeharrak onartzen dituztela esan nahiko du.
- Behin sei proposamenak hautatu direlarik, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren antolatzaileekin koordinatzeko lanari ekingo zaio.
- Espazioak beren testuinguru errealean edo fikziozko testuinguru batean erabil daitezke, eta aipatutako espazioetan egon behar dute. Gainera, ekoizpenerako bideragarriak izan beharko dute, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak bete beharko dituzte, eta publikoari ibilbidea erraztu beharko diote..

Hirugarrena: balioespen-irizpideak

Proposamenak baloratzekoan gehienez ere 100 puntu emango dira, eta gutxienez 50 puntu beharko dira lehiatzeko aukera izateko.



IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<p>1. Produkzio-proiektuaren balorazio artistikoa. Produkzioan inplikaturako elementu hauek hartuko dira kontuan.</p> <p>1.1: Jatorrizko ideia, testuak, dramaturgia edo koreografia, eszenografia, jantziak, argiztapena...</p> <p>1.2: Berrikuntza artistikoa: lengoia/dramaturgia berrien garapena.</p> <p>1.3: Diziplina artistiko desberdinen elkargunea.</p> <p>1.4: Bideragarritasun ekonomikoa (aurrekontua) eta teknikoa.</p>	<p>1.1: 40 puntu</p> <p>1.2: 10 puntu</p> <p>1.3: 5 puntu</p> <p>1.4: 10 puntu</p>
<p>2 Pertsona edo erakunde eskatzailearen eta parte hartzen dutenen ibilbidearen balorazioa.</p> <p>2.1: Proiektuan parte hartzen duten pertsona guztien curriculum (artistak, teknikariak, etab.).</p> <p>2.2: Deialdian parte hartzea eskatzen duenaren ibilbidearen balorazioa (pertsonek edo erakundearen CV).</p> <p>2.3: Eskatzen duen pertsonak edo erakundeak edo parte hartzen dutenek bitartekotza-ekintzetan eta proposamen inklusiboetan duten esperientzia.</p>	<p>2.1: 5 puntu</p> <p>2.2: 4 puntu</p> <p>2.3: 3 puntu</p>
<p>3. Proiektuaren interesa:</p> <p>3.1: Proposamenean sustatzen diren balioen interesa (tolerantzia, kultura-aniztasunaren ezagutza, espirtu kritikoa, ingurumena, etab.).</p> <p>3.2: Kultura-bitartekaritzako ekintzen presentzia zehatza aurkeztutako proiektuan.</p>	<p>3.1: 2 puntu</p> <p>3.2: 5 puntu</p>
<p>4. Proposatutako jardueran euskara erabiltzea. Honako elementu hauek hartuko dira kontuan, adierazitako balioekin:</p> <p>4.1: Euskarazko bertsioa egotea.</p> <p>4.2: Euskararen erabilera baloratzea (lan-hizkuntza, materialak, komunikazio-hizkuntza den...)</p> <p>Irizpide hau ez da aplikatuko testu batean oinarritzen ez diren proiektuetan; beraz, proiektu horien balorazio osoa egiteko formula hau aplikatuko da: lortutako puntuazioa X 100/90</p>	<p>4.1: 5 puntu</p> <p>4.2: 5 puntu</p>
<p>5. Emakumeek aurkeztutako proiektuan parte hartzea. Honako elementu hauek hartuko dira kontuan, adierazitako balioekin:</p>	



5.1: Emakumeen presentzia produkzio-proiektuan inplikaturako pertsona guztietan: emakumeak kontratatzea, emakumeak arduraren edo gerentzia-karguetan egotea, gizarte-desabantailan dauden emakumeak kontratatzea, etab.	5.1: 3 puntu
5.2: Azaldu nola txertatu den genero-ikuspegia proiektuan: berdintasun-plana (egonez gero), ekintza positiboko neurriak, kontziliazio-neurriak, hizkuntza inklusiboaren erabilera, etab.	5.2: 3 puntu

Laugarrena: epaimahaia eta hautatze-prozesua

- Hautaketa Batzordeak hiru kide izango ditu: Marta Monfort, Udal Antzoki Sareko burua, Jemima Cano, dantza ekoizlea eta kultur kudeatzailea eta Mireia Gabilondo, antzerkigile eta aktorea. Antzoki Sareko beste teknikari batek idazkaritza teknikoaren lanak egingo ditu
- Espazio bakoitzerako proposamen bana hautatuko du **epaimahaiak**, guztira sei, bakoitza konpainia batena.
- Proiektuak hautatzeko **BALIOESPEN-IRIZPIDEEN** atalean adierazten dena izango da kontuan.

Bosgarrena: zenbatekoa

- Hautatutako proposamen bakoitzak **3.500,00 € (BEZa barne)** jasoko ditu antzezpenen ordainetan.
- Antzezlanaren ekoizpena eta gauzatzetik sortzen diren gastu guztiak hartuko ditu bere baitan ordainketak.
- Kontratua egingo da hautatutakoekin, atal honetako lehenengo paragrafoan adierazitako zenbatekoan, LCSP 2017 Legean ezarritakoari jarraituz.



- Ordaindu aurretik faktura aurkeztu beharko da. Ordainketa bi epeetan egingo da: % 50a kontratua sinatzen denean eta gainerako % 50a errepresentazioen ondoren.

Seigarrena: proposamenak aurkezteko epea eta lekua

- **2025eko maiatzaren 5eko** 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak.
- Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera legez aurreikusitako gainerako moduetan.

Zazpigarrena: behar diren agiriak

Honako hauek bildu beharko ditu bere baitan proposamenak:

- Eskabide-orria beteta (eskatutako zenbateko ekonomikoa berariaz adieraziz).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena
- Testuaren aurrerapena, ahozko hizkuntza erabiltzen duten obretarako, eta dramaturgia-proposamena
- Proposatutako espazioa eta proposamenaren arrazoiketa.
- Konpainiaren curriculum laburra.
- Proposamena argitzen duen beste edozein informazio, idatziz nahiz ikus-entzunezko formatuan eta oinarri hauetako hirugarren puntuan ezarritako irizpideen taularekin lotutako argibideak.



Zortzigarrena: deialdia ebazteko epea

- **2025eko maiatzaren 26tik** aurrera, UDAL ANTZOKI SAREAK balorazioaren emaitza jakinaraziko du udalaren webgunearen bidez.
- Aurreko puntuan adierazitako egunetik aurrera finkatuko dira lehenengo bilerak, planifikatzeko, espazioak ikuskatzeko eta ekoizpenak prestatzeari ekiteko.

Bederatzigarrena: onuradunaren betebeharrak

- Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzea.
- Gehienez hamar eguneko epean onartzen duela idatziz berrestea. Hala berretsi ondoren, Udal Antzoki Sarea harremanetan jarriko da hautatuetako bakoitzarekin, kontratua sinatu eta hori gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.
- Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematea.
- Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea.
- Lagatako espazio eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Udal Antzoki Saretik ematen zaizkion arauak betetzea.
- Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzea.
- Lana, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustea, harik eta Udal Antzoki Sareak emandako jarraibideei jarraiki erakusten den arte.
- Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko egokitzen diren informazioa eta dokumentazioa ematea, eta, behar izanez gero, proposamen eszenikoaren baitan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzea.



- Proposamenen publizitatea Udal Antzoki Sarearen kontura izango da, eta berak ezartzen dituen irizpideen arabera.

Hamargarrena: oinarriak interpretatu eta onartzea

- Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak argituko du.
- Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauean ezartzen diren baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da laguntza bertan behera geratzeko, horrek ekar dezakeen erantzukizuna gorabehera.

GASTEIZKO ANTZOKI SAREA

GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI-JAIALDIA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Gasteizen, 2025eko otsailaren 18an